

186. araua

Atzerriko pertsona-izenak. Grafia-irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua

(Euskaltzaindiak 2017ko urriaren 27an onartua, Gasteizen)

1 Beste hizkuntzetako pertsona-izenen “euskaratzea”

2 Salbuespen historikoak

3 Gaur egungo salbuespenak

3.1 Aita santuak

3.2 Errege-erreginak (eta printze-printzesak ere bai)

3.2.1 Frantsesaren jokaera

3.2.2 Gaztelaniaren jokaera

3.2.3 Euskararen jokaera

4 Euskaltzaindiaren gomendioa

5 Errege-erreginen zerrendak

5.1 Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginak lurraldeka eta ordena kronologikoan

5.2 Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginak alfabetoaren hurrenkeran

5.3 Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginak: gaztelania-euskara

5.4 Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginak: frantsesa-euskara

5.5 Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginak: ingelesa-euskara

Hona hemen, laburturik, gomendioa:

Euskaltzaindiak errege-erreginen izenen euskarazko idazkerari buruz ematen duen gomendioa

1- Europako errege-erregina **historikoen** izenak, oro har, **euskal grafiara egokituta** idazten dira, santu-santen izenak egokitzen diren bezala eta gure inguruko hizkuntzetan ere ohitura den moduan. Adibidez, *Gilelmina I.a Herbehereetakoa* (jatorrizko izena: *Wilhelmina*; gaztelaniaz, *Guillermina*; frantsesez: *Wilhelmine*; ingelesez: *Wilhelmina*); *Filipe II.a Espainiakoa* (jatorrizko izena: *Felipe*; frantsesez: *Philippe*; ingelesez: *Philip*); *Henrike IV.a Frantziakoa* (jatorrizko izena: *Henri*; gaztelaniaz: *Enrique*; ingelesez: *Henry*).

Dena dela, Europako iparraldeko erresumetakoak, ezezagunagoak-edo baitzaizkigu, ez egokitzea da joera nagusia. Adibidez, Eskandinaviako *Harald* edo *Magnus*, edo Eskoziako *Duncan* edo *Malcolm*.

2- Errege-erregina **garaikideen** kasuan, berriz, haien jatorrizko izenak **ez dira egokitzen**; hau da, jatorrizkoan bezala idazten dira. Zehazki, Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik (**1945az geroztik**) errege edo erregina bihurtu direnen izenak ez dira egokitzen. Adibidez, *Elizabeth II.a Erresuma Batukoa*, *Felipe VI.a Espainiakoa*, *Beatrix Herbehereetakoa*.

1 Beste hizkuntzetako pertsona-izenen “euskaratzea”

Gaur egun, gure kultura-ingurune zabalean, kanpoko pertsona-izenen grafia ez da aldatzen¹. Hori da irizpide nagusia gure inguruko hizkuntzetan, bai eta euskaran ere. Alegia, *Marie Curie*, *Adolf Hitler*, *Hillary Clinton* edo *Italo Calvino* beren jatorrizko grafia horrekin idazten dira euskaraz, abizenen grafia aldatu gabe eta ponte-izenen euskal ordainak erabili gabe (**Maria Kurie*, **Adolfo Hitler*, **Hilaria Klinton*, **Italo Kalbino*).

Hori irizpide nagusia izanda ere, badira salbuespen batzuk. Batetik, salbuespen historikoak; bestetik, gaur egungo salbuespenak.

2 Salbuespen historikoak

Antzinateko pertsona-izenak (eta kidekoak, hala nola izen mitologikoak) gehienbat latinaren bidez iritsi ziren grekoan barrena Europako mendebaldera, eta handik egin zuten jauzi, grafia-egokitzapen gehiago edo gutxiagorekin, beste hizkuntzetara eta euskarara. Erdi Aroan ere, tokian tokiko hizkuntzak garatu eta itzala hartu arte, latina zen hizkuntza prestigioduna, hizkuntza jaso, kulturarako hizkuntza Europako mendebaldean. Horregatik, ohikoa da garai haietako pertsona-izen askoren grafia latinez agertzea eta gero, latinetik, grafia egokituta moldatzea hizkuntzatik hizkuntzara. Izen horien euskarazko grafiari buruzko irizpideak eta izen-zerrendak Euskaltzaindiaren arauetan ageri dira (66 *Santutegiko izen ohikoenak*; 76 *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*; 82 *Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak*; 129 *Aita santuen izenak*; 175 *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (I)*. *Mesopotamia, Mediako Inperioa, Akemenestar Inperioa eta Lidia*; 176 *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (II)*. *Antzinateko Egipto*; 177 *Antzinateko pertsona-izenak eta izen mitologikoak (III)*. *Bibliako pertsona-izenak*; 179 *Bizantziar Inperioko pertsona-izenak*, 180 *Goi Erdi Aroko pertsona-izenak*. *Germaniar jatorriko pertsona-izenak*; 181 *Erdi Aroko pertsona-izenak*).

3 Gaur egungo salbuespenak

3.1 Aita santuak

Aita santuek hautatuak izan ondoren aukeratzen dute aita santu izena. Adibidez, azken aita santuak *Franciscus* izena aukeratu zuen hautatu zutenean 2013an —latinez, Egoitza Santuko

¹ Alde batera utzirik gure alfabetoa erabiltzen ez duten hizkuntzetako pertsona-izenak, halakoak transkribatu edo transliteratu egiten baitira ezinbestean, hau da, gure alfabetoko grafemetara aldatzen dira. Adibidez, *زها حديد* irakiar arkitektoa **Zaha Hadid** transkribatzen dugu, *Чайковский* errusiar musikaria **Txaikovski** transkribatzen dugu, *Καραμανλής* greziar politikaria **Karamanlis**, *毛泽东* txinatar politikaria **Mao Zedong**, *明仁* japoniar enperadorea **Akihito** edo *အောင်ဆန်းစုကြည်* birmaniar politikaria eta Nobel sariduna **Aung San Suu Kyi** idazten dugu gure alfabetoan.

hizkuntza ofizialean—, baina haren jatorrizko izena *Jorge Mario Bergoglio* da. Eta aita santu izena egokitu egiten da hizkuntzaz hizkuntza²:

- latina: *Franciscus*; alemana: *Franziskus*; euskara: *Frantzisko*; frantsesa: *François*; gaztelania: *Francisco*; ingelesa: *Francis*; italiera: *Francesco*; katalana: *Francesc...*

3.2 Errege-erreginak (eta printze-printzesak ere bai)

Errege-erreginen izenek dinastia baten, familia baten edo instituzio baten jarraitutasunaren adierazgarri dira. Izenari ordinala erantsita, zentzu historikoa hartzen dute. Halako izaera sinboliko bat dute, eta, nolabait, grafia-jarraitutasunak halako zilegitasun-kutsu bat eransten dio erregetzari³: *Alfontso XIII.a* Espainiakoa izan zen lehenago *Alfontso XII.* bat izan zelako. Horregatik edo, errege-erreginen izenen egokitzapena fenomeno orokor bat da gure inguruko hizkuntzetan. Adibidez, *Henrike VIII.a* Ingalaterrakoa eta *Gilemina I.a Herbehereetakoa* honela izendatzen dira gure inguruko hizkuntzetan:

- alemana: *Heinrich VIII.*; daniera: *Henrik 8.*; frantsesa: *Henri VIII*; gaztelania: *Enrique VIII*; ingelesa (jatorrizkoa): **Henry VIII**; italiera: *Enrico VIII*; katalana: *Enric VIII*; nederlandera: *Hendrik VIII*; portugesa: *Henrique VIII...*
- alemana: *Wilhelmina*; daniera: *Vilhelmine*; frantsesa: *Wilhelmine*; gaztelania: *Guillermína*; ingelesa: *Wilhelmina*; italiera: *Guglielmina*; katalana: *Guillemina*; nederlandera (jatorrizkoa): **Wilhelmina**; portugesa: *Guilhermina...*

Errege-erreginen izenak hizkuntza bakoitzera egokitzeko tradizio orokor hori ahultzen edo pitzatzen hasi zen hizkuntza batzuetan XX. mendean. Beste batzuetan, berriz, indarrean dirau. Hona hemen erakusgarri bat: Europan, Espainiakoa da Europan berri den azken erregeetarikoa. Wikipedian arakatuta, ikusten da Europako 15 hizkuntzak —gaztelania kontuan hartu gabe— *Felipe* sarrera eman diotela entziklopedian, gaztelaniako grafia alegia, eta 16 hizkuntzak, berriz, grafia aldatu diotela:

- Grafia aldatu ez dutenak: alemana, bretoiera, daniera, errumaniera, eskoziera, estoniera, finlandiera, gaelikoa, galesera, frantsesa, ingelesa, letoniera, nederlandera, norvegiera, suediera: **Felipe VI**.

² Bere benetako ponte-izena aita santu izen gisa erabili zuen azken aita santua *Martzelo II.a* izan zen, 1555ean.

³ Errege-izena ez da, nahitaez, ponte-izena. Zenbaitetan, errege-erreginek aldatu egin dute beren izena erregetzara iristean. Adibidez, *Oton III.a* Bavariako dukeak *Bela* izena hartu zuen Hungariako errege bihurtu zenean 1305ean (*Bela V.a Hungariakoa*), bere aitonaren ponte-izena alegia. Erresuma Batuko *Viktoria* erreginaren ponte-izena *Alexandrina Viktoria* zen, baina *Viktoria* hautatu zuen erregina-izen gisa. Haren seme *Alberto Eduardo* errege bilakatu zen 1901ean, baina *Eduardo* hautatu zuen errege-izentzat (*Eduardo VII.a*).

- Grafia aldatu dutenak: azerbaijanera: **VI Flipp**; katalana: **Felip VI**; galegoa: **Filipe VI**; hungariera: **VI Fülöp**; islandiera: **Filippus 6.**; italiera: **Filippo VI**; lombardiera: **Filipp VI**; okzitania: **Felip VI**; portugesa: **Filipe VI**; siziliera: **Filippu VI**; napolesera: **Filippo VI**; eslovakiera, esloveniera, kroaziera, poloniera, txekiera: **Filip VI**.

Denboran atzera eginez gero, ikusten da gaur egun errege-erreginen grafia ez aldatzeko joera duten hizkuntzek ez dutela beti horrela jokatzeko. XX. mendeko Espainiako lehenengoa erregea (es *Alfonso XIII*) adibide harturik, hauek dira datuak.

- frantsesa: **Alphonse**; alemana, daniera, nederlandera, suediera: **Alfons**.
- ingelesa, bretoiera, galesera, estoniera, eskoziera, finlandiera, norvegiera, erromaniera: **Alfonso**.

Beraz, alemana, daniera, frantsesa, nederlandera eta suediera hizkuntzetan eten egin zen noizbait XX. mendean errege-erreginen grafia egokitze ohitura. Joera horiek zenbateraino dira orokorrak? Beste adibide ezagun batek argi egin dezake: ikusi nola jokatzeko duten gure inguruko hizkuntzek Erresuma Batuko gaur egungo erreginarekin (ingelesez: *Elizabeth II*):

- gaztelania: **Isabel II**; frantsesa: **Élisabeth II**; alemana, galesera, finlandiera: **Elisabeth II.**; bretoiera: **Elesbed II**; gaelikoa: **Eilís II**; daniera, estoniera, eskoziera, nederlandera, norvegiera, suediera: **Elizabeth II**.

Ikusten da, beraz, frantsesak eta alemanak egokitzen dutela Erresuma Batuko gaur egungo erreginarekin izenaren grafia baina ez dutela egokitzen Espainiako gaur egungo erregearen grafia. Jokabidea ez da simetrikoa, joerak hain finkatuta ez dauden seinale.

Gure bi auzo-erdaren joerak ere ez datoz guztiz bat:

3.2.1 Frantsesaren jokaera

Frantsesez, ohikoa izan da errege-erreginen izenak frantsesera egokitzea (*francisation*), baina, gaur egun, aldatu egin da egoera edo aldatzen ari da⁴. Hala ere, joerak ez dira egun batetik bestera finkatzen, eta errealitatean gauzak nahasi ageri dira batzuetan. Bizirik dauden errege-erregina batzuk frantses moldera idaztea ez da batere ezohikoa,

⁴ Kanadako Bureau de la traduction / Translation Bureau erakundeak (BtB) honela dio *Clefs du français pratique* obran:

francisation des noms de souverains

Seuls les noms de souverain qui ont déjà un équivalent en français sont francisés. On écrit : *Jacques I^{er} d'Angleterre*, *Jacques III d'Écosse* (à la place de « James »), *le roi Édouard VII* (et non « Edward »), *le kaiser Guillaume II* (et non « Wilhelm »). *George* ne prend jamais le s final.

Les noms des souverains en vie ne sont pas francisés. Ainsi : *la reine Elizabeth*, *le prince Philip*.

Espainiakoarekin hala gertatzen ez bada ere. Adibidez, Interneten ikus daitekeen moduan, *la reine Élisabeth II* ikustea ohikoa da, nahiz eta *la reine Elizabeth II* ugariagoa izan.

Hona hemen beste adibide batzuk:

-Danimarkako erregina honela ageri da frantsesezko Wikipedian: **Margrethe II**. Hala ere, aldamenean, bigarren mailan, **Marguerite II** ageri da. *Larousse* entziklopedian, berriz, **Marguerite II** besterik ez da ageri.

-Suediako erregea, berriz, alderantziz ageri da frantsesezko Wikipedian: lehenik, **Charles XVI Gustave**, eta, bigarren mailan, **Carl XVI Gustaf**. *Larousse* entziklopedian, berriz, **Charles XVI Gustave** da sarrera.

-Herbehereetako erregea honela ageri da frantsesezko Wikipedian: **Willem-Alexander (et rarement francisé en Guillaume-Alexandre)**. *Larousse* entziklopedian, berriz, honela: **Chef de l'État : Guillaume-Alexandre (Willem-Alexander)**.

Ondorio gisa, esan daiteke errege-erreginen izenak frantses moldean idazteko tradizioa ahultzen ari dela bizirik daudenen kasuan baina ez dela desagertu.

3.2.2 Gaztelaniaren jokaera

Gaztelaniaz, indartsu dago errege-erreginen grafia egokitzeko tradizioa. Honela dio Real Academia Españolaren *Ortografía* obrak (2010):

2.2 ANTROPÓNIMOS DE OTRAS LENGUAS

2.2.1 TRANSFERENCIA Y TRADUCCIÓN DE ANTROPÓNIMOS EXTRANJEROS

(...) En la actualidad, únicamente se hispanizan, mediante traducción literal, equivalencia o adaptación, los siguientes antropónimos:

(...)

b) Los nombres de los miembros de las casas reales: *Isabel II de Inglaterra*, *Gustavo de Suecia* o *Diana de Gales*. No obstante, la transferencia está ganando terreno también en este campo: *Harry de Inglaterra*, *Frederik de Dinamarca*, *Harald de Noruega*.

Egia da Norvegiako erregea **Harald** idatzita ikusten dela komunikabideetan. Baina haren emaztearen izena (*Sonja Haraldsen*) egokitu egiten da: **Sonia de Noruega** da forma nagusia gaur egun (Espainiako gaztelanian, behintzat), eta ez **Sonja**.

Eta tradizioa indarrean dagoela ikusteko, hona hemen adibide bat, aski berria: 2015ean jaio zen Ingalaterrako printzesa baten izena (**Princess Charlotte of Cambridge**) ohikoagoa da gaztelaniaz grafia aldatuta ikustea Interneten (**la princesa Carlota**), jatorrizko grafia gordeta baino (**la princesa Charlotte**).

Bestalde, RAEren *Ortografía*k aipatzen duen **Frederik de Dinamarca** adibideari dagokionez, egia da hala idatzita ikusten dela batzuetan, baina askoz gehiago ikusten da oraindik **Federico de Dinamarca** idatzita, Interneteko nabigatzaileetan frogatu daitekeen moduan.

Ondorio gisa, esan daiteke errege-erreginen izenak gaztelaniazko moldean idazteko tradizioa bizi-bizirik dagoela, baina kasu batzuetan pitzatzen hasia dela.

3.2.3 Euskararen jokaera

Gurera etorrira, hau erakusten du errealitateak:

Batetik, lehenagoko errege-erreginen izenei dagokienez erabat orokortuta dago errege-erreginen grafia egokitzea. Horretan, bat dator gure inguruko hizkuntzen tradizioekin.

Bestetik, gaur egungo errege-erreginen izenei dagokienez, bi jokabide ageri dira:

- Euskarazko entziklopedietan eta eskola-liburuetan, egokitu egiten da grafia. Bat datoz, horretan, *Elhuyar*, *Lur*, *Harluxet* eta *Wikipedia* entziklopediak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ikasmaterialetarako estilo-liburua⁵. Guztietan, adibidez, Espainiako **Joan Karlos I.a** ageri da, eta ez **Juan Carlos I.a**.

- Hedabideetan, gaur egungo errege-erreginen izenei ez zaie aldatzen grafia, oro har (jokabide horretan batzuetan zalantzak ageri badira ere). Bat datoz, horretan, *Berría* egunkaria eta Euskal Irrati Telebista. Adibidez, Espainiako **Juan Carlos I.a** esan-idazten dute, eta ez **Joan Karlos I.a**. Bestalde, XXI. mendeko euskal literaturan, Espainiako erregearen grafia ez aldatzeko joera guztiz nagusia da.

Datuek erakusten dute, horrenbestez, gaur egungo erabilera ez dagoela bateratuta. Testu akademikoetan grafia sistematikoki egokitzen da; komunikabideetan, berriz, grafia ez egokitzea aldeztu da gaur egungo errege-erreginen izenetan.

4 Euskaltzaindiaren gomendioa

Errealitate nahasi horren aurrean, iritsia da unea Euskaltzaindiak bere iritzia plazaratzeko eta gomendio bat emateko. Batetik, historiako pertsona ezagunen izen historikoen grafiari buruzko irizpideak argitaratzen eta izen horien euskarazko grafia arautuak ematen ari delako modu sistematikoan azken urteetan; horregatik, bide horretan, komeni da gaur egungo izenei buruz ere iritzia plazaratzea. Bestetik, hezkuntzaren eta entziklopedien arloaren eta hedabide nagusien artean egun dagoen dikotomia ikusirik, komeni delako Euskaltzaindiak bere iritzia plazaratzea, argi egiten saiatzea, jakinik ere gaia ez dela goizetik gauera trenkatzen eta denbora beharko dela guztiok bide bakarrean abiatzeko, are gehiago

⁵ Irizpide bera erabiltzen da Azkue Bibliotekaren katalogazio-erregelatan ere.

ikusirik gure bi auzo-erdaretan joera zaharrak eta berriak elkarrekin edo elkarren ondoan dirautela oraindik, sendoago edo ahulago.

Horiek horrela, **gomendio** hau ematen du Euskaltzaindiak errege-erreginen izenen grafia egokitzeari buruz:

4.1 Lehengo errege-erreginen izenen grafia

Oraintsu artekoetan, ez dago zalantzarik: grafia egokitu egin behar da; hori da jokabide orokorra gaur egungo euskaran, hala entziklopedietan nola hedabideetan, eta jokabide hori bat dator gure bi auzo-erdarenarekin, frantsesez eta gaztelaniaz ere egokitu egiten baita oraintsu arteko kanpoko errege-erreginen izenen grafia.

Nolanahi ere, gure artean oso arrotz edo ezezagun gertatzen direnak ez dira egokitzen (adibidez, *Harald* edo *Magnus*. Oro har, Europako iparraldeko errege-erreginen izen guretzat ez hain ezagunak edo gutxi erabiliak ez dira egokitzen, hala nola Eskoziako *Duncan*, *Kenneth*, *Malcolm* edo *Macbeth*). Eta Asiako herrialdeetakoak ere ez dira egokitzen: gehienak transkribatu egiten dira, ez baitute gure alfabetoa erabiltzen, baina gure alfabetoa erabiltzen dutenenak ez dira egokitzen. Adibidez, Vietnamgo enperadoreen izenak edo Bruneiko sultanen izenak edo Indiako rajen izenak berdin idazten dira gure inguruko erdara nagusi guztietan, eta halaxe egiten da euskaraz ere.

4.2 Errege-erregina garaikideen izenen grafia

Ikusirik azkenaldiko joerak zein diren, eta ikusirik inguruko hizkuntzetan hain errotua egon den jokoera edo aldatu dela edo ahultzen ari dela, errege-erregina garaikideen izenen grafia ez aldatzea da Euskaltzaindiaren gomendioa, hau da, jatorrizko grafiari eustea testuetan eta jatorrizko ahoskeraren arabera ahoskatzen saiatzea, beraz, ahoskera zainduan.

Ez da nahikoa gomendio orokor eta lauso gisa ematea. Tradizio bat etetea dakar berekin gomendioak; horregatik, beharrezkoa da ondo zehaztea tradizio hori noiztik aurrera etetea gomendatzen den; alegia, modu argian zedarritzea grafia ez aldatzeko baldintzatzat ezartzen den garaikide izate hori.

Abiapuntua, horrenbestez, hau da: gaur egun bizirik dauden errege-erreginei (une honetan erreinaldian egon zein ez egon) ez aldatzea izenaren grafia. Adibidez, Erresuma Batuko **Elizabeth II.a** erregina 1952az goerotik dago erreinaldian. Beraz, haren izenaren grafia ez bada aldatu behar, haren garaiko errege-erreginen grafia ere ez da aldatzekoa, erreinaldian egon zein ez egon. Baina, zehatzago adieraztearren, data bat ezarri nahi izan du Euskaltzaindiak grafia-aldaketaren tradizioa aldatzeko mugarriztat: 1945. urtea, Bigarren Mundu Gerraren amaiera-urtea. Gerra hori Europako XX. mendeko gertakari nagusietako

bat izan zen, eta, gainera, gerra horren ondoren eta ondorioz, erresuma asko desagertu ziren Europan (Italian, Bulgarian, Hungarian, Jugoslavian, Errumanian).⁶

Gomendio hori ezartzeak esan nahi du, adibidez, Espainiako azken hiru errege-erreginen izenak honela idaztea:

- **Alfontso XIII.a** eta **Viktoría Eugenia** (*Alfonso* eta *Victoria Eugenia* jatorrizko grafiak egokituta, 1945 baino lehenagokoak baitira).
- **Juan Carlos I.a** eta **Sofía** (grafia aldatu gabe, 1945. urteaz geroztik iritsi baitziren erreinaldira).
- **Felipe VI.a** eta **Letizia** (grafia aldatu gabe, 1945. urteaz geroztikoak baitira).

Eta Suediaren kasuan, adibidez, honela:

- **Gustavo V.a** eta **Viktoría** (grafia egokituta, 1945 baino lehenagokoak baitira).
- **Gustaf VI.a** eta **Louise** (grafia aldatu gabe, 1945. urteaz geroztik iritsi baitziren erreinaldira).
- **Carl XVI.a Gustaf** eta **Silvia** (grafia aldatu gabe, 1945. urteaz geroztik iritsi baitira erreinaldira).

Oharrak:

1- Greziako kasua. Grezian ez da erabiltzen latindar alfabetoa, eta izenak transkribatu egiten dira. Greziako errege-erreginen izenen grafia egokitzea ohikoa da gure inguruko hizkuntzetan; hau da, izenak, transkribatu ez ezik, egokitu ere egiten dira. Horregatik, euskaraz ere hala jokatzeari gomendatzen da.

Adibidez, Greziako azken hiru erregeak **Γεώργιος**, **Παῦλος** eta **Κωνσταντῖνος** izan dira. Transkribatuta, honela: **Geórgios**, **Pávlos** eta **Konstantínos**. Haien izenak, ordea, transkribatzeaz gainera egokitu ere egin dira. Adibidez:

Γεώργιος > **Geórgios**

ingelesez: *George*; gaztelaniaz: *Jorge*; frantsesez: *Georges*; alemanez: *Georg*

Παῦλος > **Pávlos**

ingelesez: *Paul*; gaztelaniaz: *Pablo*; frantsesez: *Paul*; alemanez: *Paul*

⁶ Ohartzen da Euskaltzaindia zaila dela beste hizkuntza batzuetan —hala nola frantsesez eta gaztelaniaz— prozesu gisa gertatu den edo gertatzen ari den tradizioa aldatze hori euskaraz bat-batean, modu hain egituratuan, gertatzea. Horregatik plazaratzen du bere iritzia gomendio gisa, konturaturik denbora pixka bat beharko dela entziklopedia eta ikasmaterialetan aplikatzen ari den irizpidea —gaur egungo errege-erreginen izenei ere grafia egokitzea—aldatuz joateko.

Κωνσταντῖνος > **Konstantínos**

ingelesez: *Constantine*; gaztelaniaz: *Constantino*; frantsesez: *Constantin*; alemanez: *Konstantin*

Euskaraz, horrenbestez, grafia egokituta ematea gomendatzen da: **Jurgi, Paulo eta Konstantino**.

2- Belgikako kasua

Belgikan bi hizkuntza ofizial daude; beraz, Belgikako 1945az geroztiko errege-erreginen grafia bere jatorrizko forman ematekoa denez, bi formak erabili ahal izango dira euskaraz, maila berean. Horregatik, gomendio honi atxikita dagoen errege-erreginen zerrendan bikoizturik agertzen dira Belgikako 1945az geroztiko errege-erreginen izenen grafia. Adibidez: **Baudouin/Boudewijn, Philippe/Filip**.

5- Errege-erreginen zerrendak

Gomendio honen osagarri eta erakusgarri, Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erregina nagusien izenen zerrendak ematen dira (lehenagokoak, Goi Erdi Arokoak, 180. arauan eman ziren: *Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak*); guztira, 237 pertsona-izen.

Lehen zerrendan, lurraldeka banatuta ematen dira. Honela: Aragoikoak, Gaztelakoak, Espainiakoak, Portugalgoak, Frantziakoak (Frantziako erregeen erregeorde emakumezkoak eta Frantziako erregina ezkontide garrantzitsu batzuk barne), Ingalaterrakoak. Azken sail batean, Europako beste errege-erregina batzuk ematen dira (Austro-hungariar Inperiokoak, Prusiakoak, Monakokoak, Danimarkakoak, Suediakoak, Poloniakoak, Herbehereetakoak, Belgikakoak, Errusiakoak, Italiakoak, Otomandar Inperiokoak).

Oharra: erreinaldira 1945. urteaz geroztik iritsitakoak gorritz ageri dira.

5.1 Europako Erdi Aro klasikoko eta geroztiko errege-erreginak lurraldeka eta ordena kronologikoan

Sistematikoki bildu dira Aragoi, Gaztela, Espainia, Frantzia, Portugal eta Ingalaterrako errege-erreginak (Ingalaterrako guzti-guztiak ez dira jaso, dena dela). Gainerako erresumei dagokienez, nagusi batzuk baino ez dira jaso.

Aragoiko errege-erreginak

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|------------------------------------|--|--|
| Ramiro I.a Aragoikoa | Ramiro I de Aragón | Ramire I ^{er} d'Aragon | Ramiro I |
| Antso Ramiritz ⁷ | Sancho Ramírez | Sanche I ^{er} d'Aragon / Sancho Ramirez | Sancho Ramírez |
| Petri I.a ⁸ | Pedro I | Pierre I ^{er} | Peter I |
| Alfontso I.a ⁹ edo Alfontso Borrokalaria | Alfonso I de Aragón el Batallador | Alphonse I ^{er} d'Aragon le Batailleur | Alfonso I the Battler / the Warrior |
| Ramiro II.a edo Ramiro Monjea | Ramiro II de Aragón el Monje | Ramire II d'Aragon le Moine | Ramiro II the Monk |
| Petronila Aragoikoa | Petronila de Aragón | Pétronille d'Aragon | Petronilla |
| Alfontso II.a edo Alfontso Kastoa edo Alfontso Trobadorea | Alfonso II de Aragón el Casto | Alphonse le Chaste / le Troubadour | Alfonso II the Chaste / the Troubadour |
| Petri II.a edo Petri Katolikoa | Pedro II el Católico | Pierre II le Catholique | Peter II the Catholic |
| Jakue I.a edo Jakue Konkistatzailea | Jaime I el Conquistador | Jacques I ^{er} le Conquérant | James I the Conqueror |
| Petri III.a edo Petri Handia | Pedro III el Grande | Pierre III le Grand | Peter the Great |
| Alfontso III.a edo Alfontso Liberala edo Alfontso Tolesgabea | Alfonso III el Liberal / el Franco | Alphonse III le Franc / le Libéral | Alfonso III the Liberal / the Free |
| Jakue II.a edo Jakue Zuzena | Jaime II el Justo | Jacques II le Juste | James II the Just |

⁷ Iruñeko errege ere izan zen.

⁸ Iruñeko errege ere izan zen.

⁹ Iruñeko errege ere izan zen.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|---|---|
| Alfontso IV.a edo Alfontso Onbera | Alfonso IV el Benigno | Alphonse IV le Bénin / le Débonnaire | Alfonso IV the Kind |
| Petri IV.a edo Petri Zeremoniatsua | Pedro IV el Ceremonioso / el del Punyalet | Pierre IV le Cérémonieux / el del punyalet | Peter IV the Ceremonious |
| Joan I.a edo Joan Ehiztaria | Juan I el Cazador / el Amador de toda gentileza | Jean I^{er} l'Amateur de la gentilhommerie | John I the Hunter |
| Martin I.a edo Martin Gizatiarra edo Martin Zaharra | Martín I el Humano / el Viejo | Martin I^{er} l'Humain / le Vieux | Martin the Humane / the Elder / the Ecclesiastic |
| Fernando I.a edo Fernando Antequerakoa edo Fernando Zuzena edo Fernando Onesta | Fernando I / Fernando de Trastámara / Fernando de Antequera / Fernando el Justo / Fernando el Honesto | Ferdinand I^{er} d'Antequera, le Juste / de Trastámara / l'Honnête | Ferdinand I of Antequera / the Just / the Honest |
| Alfontso V.a edo Fernando Bihotz-handia | Alfonso V el Magnánimo / el Sabio | Alphonse V d'Aragon le Magnanime / le Grand | Alfonso V the Magnanimous |
| Joan II.a ¹⁰ edo Joan Handia | Juan II de Aragón, el Grande | Jean II d'Aragon le Grand | John II the Great / the Faithless |
| Fernando II.a edo Fernando Katolikoa edo Fernando Faltsutzailea | Fernando II el Católico / Fernando el Falsario | Ferdinand II le Catholique | Ferdinand II the Catholic |

¹⁰ Nafarroako errege ere izan zen.

Gaztelako errege-erreginak

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|---|--|
| Antsa | Sancha | Sancha | Sancha |
| Fernando I.a edo Fernando Handia | Fernando I (de León), el Magno / el Grande | Ferdinand I ^{er} le Grand | Ferdinand I the Great |
| Antso II.a edo Antso Azkarra | Sancho II el Fuerte | Sanche II de Castille | Sancho II the Strong |
| Alfontso VI.a edo Alfontso Ausarta | Alfonso VI (de León) el Bravo | Alphonse VI le Brave | Alfonso VI the Brave / the Valiant |
| Urraka | Urraca I | Urraque I ^{re} | Urraca |
| Alfontso VII.a edo Alfontso Enperadorea | Alfonso VII el Emperador | Alphonse VII l'Empereur | Alfonso VII the Emperor |
| Berengela Bartzelonakoa | Berenguela de Barcelona | Bérengère de Barcelone | Berengaria of Barcelona |
| Antso III.a edo Antso Desiratua | Sancho III el Deseado | Sanche III le Désiré | Sancho III |
| Zuria Nafarroakoa ¹¹ | Blanca Garcés de Navarra | Blanche de Navarre | Blanche of Navarre |
| Alfontso VIII.a edo Alfontso Noblea | Alfonso VIII de Castilla el de Las Navas / el Noble | Alphonse VIII | Alfonso VIII the Noble / el de las Navas |
| Leonor Ingalaterrakoa edo Leonor Plantagenet | Leonor (de) Plantagenet / Leonor de Inglaterra | Aliénor d'Angleterre | Eleanor of England |
| Henrike I.a | Enrique I | Henri I ^{er} | Henry I |
| Berengela Gaztelakoa | Berenguela de Castilla | Bérengère de Castille | Berengaria of Castile |
| Fernando III.a edo Fernando Santua | Fernando III el Santo | Ferdinand III / saint Ferdinand de Castille | Ferdinand III |
| Alfontso X.a edo Alfontso Jakituna | Alfonso X el Sabio | Alphonse X le Sage / le Savant | Alfonso X the Wise |
| Antso IV.a edo Antso Ausarta | Sancho IV el Bravo | Sanche IV le Brave | Sancho IV the Brave |
| Fernando IV.a edo Fernando Dei Egina | Fernando IV el | Ferdinand IV | Ferdinand IV the |

¹¹ Gaztelako erregina ezkontidea, Iruñeko erregearen alaba, Antso III.a Gaztelakoarekin ezkontua.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|--|--|--|
| | Emplazado | l'Ajourné | Summoned |
| Alfontso XI.a edo Alfontso Mendekaria | Alfonso XI el Justiciero | Alphonse XI le Vengeur / le Justicier | Alfonso XI the Just |
| Petri I.a edo Petri Ankerra | Pedro I el Cruel | Pierre I ^{er} le Cruel | Peter the Cruel |
| Joan Gantekoa, Lancasterko dukea eta Akitaniako dukea | Juan de Gante, duque de Lancaster y duque de Aquitania | Jean de Gand, duc de Lancastre et duc d'Aquitaine | John of Gaunt, 1st Duke of Lancaster |
| Konstantza Gaztelakoa | Constanza de Castilla / Constanza de Borgoña | Constance de Castille | Constance of Castile |
| Henrike II.a edo Henrike Fratrizida edo Henrike Trastamarakoa | Enrique II el Fratricida / «el de las Mercedes / Enrique de Trastámara | Henri II / Henri de Trastamare | Henry II the Fratricidal |
| Joan I.a | Juan I | Jean I | John I |
| Herike III.a edo Henrike Gaixotia | Enrique III el Doliente | Henri III le Maladif / l'Infirm | Henry III the Sufferer / Henry the Sick |
| Joan II.a | Juan II | Jean II | John II |
| Henrike IV.a edo Henrike Inpotentea | Enrique IV el Impotente | Henri IV l'Impuissant | Henry IV the Impotent |
| Joana Gaztelakoa edo Joana Beltraneja | Juana la Beltraneja / Juana de Castilla | Jeanne de Castille, La Beltraneja | Joanna la Beltraneja / Joanna of Castile |
| Elisabet I.a edo Elisabet Katolikoa | Isabel I la Católica | Isabelle I ^{re} la Catholique | Isabella I the Catholic |
| Joana I.a edo Joana Eroa | Juana I de Castilla la Loca | Jeanne I ^{re} de Castille / Jeanne la Folle | Joanna the Mad |

Espainiako errege-erreginak

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---------------------------|----------------------|------------------------|
| Karlos I.a Espainiakoa (eta Karlos V.a Germaniako Erromatar Inperio Santukoa) | Carlos I de España y V de | Charles de Habsbourg | Charles I th Emperor / |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|--|---------------------------------------|--------------------------------------|
| | Alemania, el César, el Viajero, el Ausente | | Charles V |
| Filipe II.a Espainiakoa edo Filipe Zuhurra (eta Filipe I.a Portugalgoa) | Felipe II el Prudente | Philippe II | Philip II the Prudent |
| Filipe III.a Espainiakoa edo Filipe Debotoa (eta Filipe II.a Portugalgoa) | Felipe III el Piadoso | Philippe III | Philip III the Pious |
| Filipe IV.a Espainiakoa edo Filipe Handia (eta Filipe III.a Portugalgoa) | Felipe IV el Grande / el Rey Planeta | Philippe IV le Grand / le roi-Planète | Philip IV of Spain |
| Karlos II.a edo Karlos Sorgindua | Carlos II el Hechizado | Charles II l'Ensorcelé | Charles II the Bewitched |
| Filipe V.a | Felipe V el Animoso | Philippe V | Philip V |
| Luis I.a | Luis I el Bien Amado / el Liberal | Louis I ^{er} | Louis I |
| Fernando VI.a | Fernando VI de España el Prudente / el Justo | Ferdinand VI le Sage | Ferdinand VI the Learned |
| Karlos III.a | Carlos III el Político / el Mejor Alcalde de Madrid | Charles III | Charles III |
| Karlos IV.a edo Karlos Ehiztaria | Carlos IV de España, el Cazador | Charles IV | Charles IV the Hunter |
| Fernando VII.a | Fernando VII de España el Deseado / el rey Felón | Ferdinand VII | Ferdinand VII |
| Josef I.a edo Josef Bonaparte | José I Bonaparte / José Napoleón I (Pepe Botella o Pepe Plazuelas) | Joseph Bonaparte | Joseph I / Joseph-Napoléon Bonaparte |
| Elisabet II.a edo Isabel II.a ¹² | Isabel II la de los Tristes Destinos / la Reina Castiza | Isabelle II | Isabella II |

¹² Euskarazko ponte-izen arautua **Elisabet** da. Dena dela, kontuan izanda erregina horrek Euskal Herrian izan zuen eragina eta **Isabel** forman garai hartako testu askotan agertzen dela, bigarren forma hori ere ontzat ematen da salbuespen gisa.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|-----------------------------|---|
| Amadeo I.a edo Amadeo Savoia koa | Amadeo I el Rey Caballero o el Electo | Amédée I ^{er} | Amadeo I |
| Alfontso XII.a | Alfonso XII el Pacificador | Alphonse XII | Alfonso XII |
| Maria Kristina Austriakoa | María Cristina de Habsburgo-Lorena / María Cristina de Austria | Marie-Christine d'Autriche | Maria Christina Henriette Desideria Felicitas Raineria of Austria |
| Alfontso XIII.a | Alfonso XIII el Africano | Alphonse XIII | Alfonso XIII |
| Juan Carlos I.a | Juan Carlos I | Juan Carlos I ^{er} | Juan Carlos I |
| Felipe VI.a | Felipe VI | Felipe VI | Felipe VI |

Portugalgo errege-erreginak

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|--|---|--|
| Alfontso I.a edo Alfontso I.a Konkistatzailea | Alfonso I el Conquistador / Alfonso Enríquez | Alphonse I ^{er} / Alphonse-Henri / Afonso Henriques | Afonso I the Conqueror / Afonso Henriques |
| Antso I.a edo Antso Populatzailea | Sancho I el Poblador | Sanche I ^{er} le Laboureur / le Fondateur / le Colonisateur / le Populaire | Sancho I the Populator |
| Alfontso II.a edo Alfontso Gizena | Alfonso II el Gordo | Alphonse II le Gras | Afonso II the Fat |
| Antso II.a edo Antso Debotoa edo Antso Kapeladuna | Sancho II el Capelo / el Piadoso | Sanche II le Pieux | Sancho II the Pious / the Caped / the Capuched |
| Alfontso III.a edo Alfontso Boloniarra | Alfonso III el Boloñés o el Reformador | Alphonse III le Boulonnais | Afonso III the Bolognian |
| Dionisio I.a edo Dionisio Nekazaria edo Errege Poeta | Dionisio I el Labrador | Denis le Laboureur / le Roi Agriculteur / le Roi Poète / le Roi Troubadour / le Père de la Patrie | Denis the Farmer King / the Poet King |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|
| Alfontso IV.a edo Alfontso Adoretsua | Alfonso IV el Bravo | Alphonse IV le Vaillant | Afonso IV the Brave |
| Petri I.a edo Petri Justiziatia edo Petri Ankerra | Pedro I el Justiciero | Pierre I^{er} le Justicier | Peter I the Just / the Cruel |
| Fernando I.a edo Fernando Ederra edo Fernando Aldartetsa | Fernando I el Hermoso | Ferdinand I^{er} le Beau | Ferdinand I the Handsome / the Inconstant |
| Beatriz Portugalgoa | Beatriz de Portugal | Béatrice de Portugal | Beatrice of Portugal |
| Joan I.a edo Joan Ongi Gogoratua | Juan I el de Buena Memoria | Jean I^{er} de Bon Souvenir | John I of Happy Memory |
| Eduardo I.a edo Eduardo Ele-ederra | Eduardo I el Elocuente | Édouard I^{er} l'Éloquent | Edward the Philosopher / the Eloquent |
| Alfontso V.a edo Alfontso Afrikarra | Alfonso V el Africano | Alphonse V l'Africain | Afonso V the African |
| Joan II.a edo Printze Perfektua | Juan II de Avis, el Príncipe Perfecto | Jean II le Prince parfait | John II the Perfect Prince |
| Sebastian I.a edo Sebastian Desiratua | Sebastián I el Deseado | Sébastien I^{er} | Sebastian I the Desired |
| Henrike I.a edo Henrike Kastoa | Enrique I el Piadoso /el Casto / Enrique el cardenal | Henri I^{er} le Chaste / le Cardinal-roi | Henry the Chaste |
| Antonio I.a edo Antonio Cratoko Priorea edo Antonio Deliberatua | Antonio de Portugal, prior de Crato / el Determinado | Antoine I^{er} Prieur de Crato | António I, Prior of Crat / the Determined / the Fighter / the Independentist |
| Filipe I.a Portugalgoa edo Filipe Zuhurra (eta Filipe II.a Espainiakoa) | Felipe I de Portugal | Philippe I | Philip I |
| Filipe II.a Portugalgoa (eta Filipe III.a Espainiakoa) | Felipe II el Piadoso | Philippe II | Philip II the Pious |
| Filipe III.a Portugalgoa (eta Filipe IV.a Espainiakoa) | Felipe III | Philippe III | Philip III |
| Joan IV.a edo Joan Berrezarlea | Juan IV el Restaurador | Jean IV le Restaurateur | John IV the Restorer |
| Alfontso VI.a edo Alfontso Garailea | Alfonso VI el Victorioso | Alphonse VI le Victorieux | Afonso VI the Victorious |
| Petri II.a edo Petri Baketsua | Pedro II el | Pierre II | Peter II the |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|---|---|
| | Pacífico | | Peaceful |
| Joan V.a edo Joan Bihotz-handia | Juan V el Magnánimo | Jean V le Magnanime | John V the Magnificent |
| Josef I.a edo Josef Erreformatzailea | José I el Reformador | Joseph I ^{er} le Réformateur | Joseph I the Reformer |
| Maria I.a edo Maria Deboziotsua edo Maria Eroa | María I la Píadosa | Marie I ^{re} la Pieuse / Marie I ^{re} la Folle | Maria the Pious / Maria the Mad |
| Petri III.a | Pedro III | Pierre III | Peter III |
| Joan VI.a edo Joan Errukiorra | Juan VI el Clemente | Jean VI le Clément | John VI the Clement |
| Petri IV.a Portugalgoa edo Petri Askatzailea edo Errege Soldadua (eta Petri I.a Brasilgoa) | Pedro I de Brasil y IV de Portugal el Rey Soldado | Pierre I ^{er} du Brésil et Pierre IV de Portugal le Libérateur / le Roi soldat | Pedro I / Pedro IV the Liberator / the Soldier King |
| Maria II.a edo Maria Hezitzailea edo Ama Ona | María II la Educadora | Marie II | Maria II the Educator / the Good Mother |
| Mikel I.a edo Mikel Absolutista edo Mikel Tradizionalista | Miguel I el Tradicionalista | Michel I ^{er} | Miguel I the Absolutist / the Traditionalist |
| Fernando II.a edo Errege Artista | Fernando II el Artista | Ferdinand II le Roi Artiste | Ferdinand II |
| Petri V.a edo Petri Itxaropentsua | Pedro V el Esperanzado | Pierre V | Peter V the Hopeful |
| Luis I.a | Luis I el Popular | Louis I ^{er} | Luís I |
| Karlos I.a edo Karlos Diplomatikoa | Carlos I el Diplomático | Charles I ^{er} | Carlos the Diplomat |
| Manuel II.a edo Manuel Abertzalea edo Manuel Dohakabea | Manuel II el Patriota / el Desventurado | Manuel II | Manuel II the Patriot / the Unfortunate |

Frantziako errege-erreginak

Kapetarren dinastia 928. urtean hasi zen, eta dinastia horrekin, 1254tik aurrera, “Frantziako errege/erregina” titulua erabiltzen hasi zen. Dinastia horretako errege-erreginak Nafarroako errege-erreginak ere izan ziren 1285etik 1328ra bitartean.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|-------------------------------------|--|
| Roberto II.a edo Roberto Deboziotsua | Roberto II el Piadoso | Robert II le Pieux | Robert II the Pious |
| Henrike I.a | Enrique I | Henri I ^{er} | Henry I |
| Filipe I.a | Felipe I | Philippe I ^{er} | Philip I the Amorous |
| Luis VI.a edo Luis Gizena | Luis VI el Gordo / el Batallador | Louis VI le Gros / le Batailleur | Louis VI the Fat |
| Luis VII.a edo Luis Gaztea | Luis VII el Joven | Louis VII le Jeune | Louis VII the Younger / the Young |
| Filipe II.a Augusto | Felipe II Augusto | Philippe II Auguste | Philip II Augustus |
| Luis VIII.a edo Luis Lehoia | Luis VIII el León | Louis VIII le Lion | Louis VIII the Lion |
| Luis IX.a edo Luis Santua | Luis IX / San Luis de Francia | Louis IX le Prudhomme / Saint Louis | Louis IX / Saint Louis |
| Filipe III.a edo Filipe Ausarta | Felipe III el Atrevido | Philippe III le Hardi | Philip III the Bold |
| Filipe IV.a ¹³ edo Filipe Ederra | Felipe IV el Hermoso | Philippe IV le Bel / le roi de fer | Philip the Fair / the Iron King |
| Luis X.a ¹⁴ edo Luis Setatia | Luis X el Obstinado | Louis X le Hutin | Louis X the Quarreler, the Headstrong / the Stubborn |
| Joan I.a ¹⁵ edo Joan Hilondokoa | Juan I el Póstumo | Jean I ^{er} le Posthume | John I the Posthumous |
| Filipe V.a ¹⁶ edo Filipe Luzea | Felipe V el Largo | Philippe V le Long | Philip V the Tall |
| Karlos IV.a ¹⁷ edo Karlos Ederra | Carlos IV el Hermoso | Charles IV le Bel | Charles IV the Fair |
| Filipe VI.a edo Filipe Valoiskoa edo Filipe Zorionekoa | Felipe VI de Valois el Afortunado / el rey encontrado | Philippe VI le Fortuné | Philip VI the Fortunate |
| Juan II.a edo Joan Ona | Juan II el Bueno | Jean II le Bon | John II the Good |
| Karlos V.a edo Karlos Jakituna | Carlos V el Sabio | Charles V le Sage | Charles V the Wise |

¹³ Nafarroako errege ere izan zen: **Filipe I.a Nafarroakoa**.

¹⁴ Nafarroako errege ere izan zen: **Luis I.a Nafarroakoa**.

¹⁵ Nafarroako errege ere izan zen: **Joan I.a Nafarroakoa**.

¹⁶ Nafarroako errege ere izan zen: **Filipe II.a Nafarroakoa**.

¹⁷ Nafarroako errege ere izan zen: **Karlos I.a Nafarroakoa**.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|--|
| Karlos VI.a edo Karlos Maitatua edo Karlos Eroa | Carlos VI de Francia el Bien Amado / Carlos el Loco | Charles VI le Bien-Aimé / le Fou | Charles VI the Beloved / the Mad |
| Karlos VII.a edo Karlos Garailea edo Karlos Ongi Zerbitzatua | Carlos VII de Francia el Victorioso / el Bien Servido | Charles VII le Victorieux / le Bien Servi | Charles VII the Victorious / the Well-Served |
| Luis XI.a edo Luis Zuhurra | Luis XI el Prudente | Louis XI le Prudent | Louis XI the Prudent |
| Karlos VIII.a edo Karlos Adeitsua | Carlos VIII de Francia el Afable / el Cabezudo | Charles VIII l'Affable | Charles VIII the Affable |
| Luis XII.a edo Herriaren Aita | Luis XII el Padre del Pueblo | Louis XII le Père du peuple | Louis XII Father of the People |
| Frantzisko I.a edo Letren Aita eta Berrezarlea edo Errege Zalduna | Francisco I de Francia el Padre y Restaurador de las Letras, el Rey Caballero / el Rey Guerrero | François I ^{er} le Père et Restaurateur des Lettres / le Roi-Chevalier | Francis I the Father and Restorer of Letters / Francis of the Large Nose / the Knight-King |
| Henrike II.a | Enrique II | Henri II | Henry II |
| Frantzisko II.a | Francisco II | Francis II | François II |
| Karlos IX.a | Carlos IX | Charles IX | Charles IX |
| Henrike III.a | Enrique III | Henri III | Henry III |
| Henrike IV.a ¹⁸ edo Henrike Handia edo Henrike Errege Ona | Enrique IV el Grande / el Buen Rey | Henri IV le Grand / le bon roi Henri | Henry IV, Good King Henry |
| Luis XIII.a ¹⁹ edo Luis Zuzena | Luis XIII el Justo | Louis XIII le Juste | Louis XIII |
| Luis XIV.a ²⁰ edo Luis Handia edo Eguzki Erregea | Luis XIV el Grande / el Rey Sol | Louis XIV le Grand / le Roi-Soleil | Louis XIV the Great / the Sun King |
| Luis XV.a ²¹ edo Luis Maitatua | Luis XV El Bienamado | Louis XV le Bien-Aimé | Louis XV the Beloved |

¹⁸ Nafarroako errege ere izan zen (Nafarroa Beherean): **Henrike III.a Nafarroakoa**.

¹⁹ Nafarroako errege ere izan zen (Nafarroa Beherean): **Luis II.a Nafarroakoa**.

²⁰ Nafarroako errege ere izan zen (Nafarroa Beherean): **Luis III.a Nafarroakoa**.

²¹ Nafarroako errege ere izan zen (Nafarroa Beherean): **Luis IV.a Nafarroakoa**.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|---|--|
| Luis XVI.a ²² | Luis XVI | Louis XVI | Louis XVI |
| Luis XVII.a | Luis XVII (Luis Carlos de Borbon y Habsburgo-Lorena) | Louis XVII (Louis-Charles de France) | Louis XVII (Louis-Charles, Dauphin of France) |
| Napoleon I.a (Napoleon Bonaparte) | Napoléon I (Napoléon Bonaparte) | Napoléon I ^{er} (Napoléon Bonaparte) | Napoleon I (Napoléon Bonaparte) |
| Luis XVIII.a edo Luis Desiratua | Luis XVIII el Deseado | Louis XVIII le Désiré | Louis XVIII the Desired |
| Napoleon II.a | Napoléon II (Napoléon Francisco José Carlos Bonaparte) | Napoléon II (Napoléon François Charles Joseph Bonaparte) | Napoleon II (Napoléon François Charles Joseph Bonaparte) |
| Karlos X.a | Carlos X | Charles X | Charles X |
| Luis Filipe I.a | Luis Felipe I | Louis-Philippe I ^{er} | Louis Philippe I |
| Napoleon III.a (Luis Napoleon Bonaparte) | Napoléon III (Carlos Luis Napoléon Bonaparte) | Napoléon III (Charles Louis Napoléon Bonaparte, dit Louis-Napoléon Bonaparte) | Napoleon III (Louis-Napoléon Bonaparte) |

Frantziako erregeen erregeorde emakumezkoak

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--------------------------------------|----------------------------------|--|----------------------------------|
| Ana Kiev-ekoa | Ana de Kiev / Ana Yaroslavna | Anne/Agnès de Kiev | Anne of Kiev |
| Adela Champagnekoa | Adela de Champaña | Adèle, Alix ou Alice de Champagne | Adela of Champagne |
| Zuria Gaztelakoa | Blanca de Castilla | Blanche de Castille | Blanche of Castile |
| Joana Burgundiakoa edo Joana Herrena | Juana de Borgoña / Juana la Coja | Jeanne de Bourgogne / Jeanne la Boiteuse | Joan of Burgundy / Joan the lame |
| Elisabet Bavariakoa | Isabel de Baviera | Isabeau de Bavière / Isabeau de Wittelsbach- | Isabeau of Bavaria |

²² Nafarroako errege ere izan zen (Nafarroa Beherean): Luis V.a Nafarroakoa.

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--------------------|--------------------|----------------------|----------------------|
| | | Ingolstadt | |
| Katalina Medici | Catalina de Médici | Catherine de Médicis | Catherine de' Medici |
| Maria Medici | María de Médici | Marie de Médicis | Marie de' Medici |
| Ana Austriakoa | Ana de Austria | Anne d'Autriche | Anne of Austria |
| Eugenia de Montijo | Eugenia de Montijo | Eugénie de Montijo | Eugénie de Montijo |

Frantziako erregina ezkontide garrantzitsu batzuk

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|--|
| Maria I.a Eskoziakoa edo Maria, eskoziarren erregina edo Maria Estuardo | María I de Escocia / María, reina de los escoceses / María Estuardo | Marie Ire d'Écosse / Marie, reine des Écossais / Marie Stuart | Mary I of Scotland / Mary, Queen of Scots / Mary Stuart or Stewart |
| Maria Antonieta Austriakoa | María Antonieta de Austria / María Antonia Josefa Juana de Habsburgo-Lorena | Marie-Antoinette d'Autriche / Marie-Antoinette Joséphe Jeanne | Marie Antoinette |
| Josefina Bonaparte edo Josefina de Beauharnais | Josefina de Beauharnais / María Josefina Rosa Tascher de la Pagerie | Joséphine de Beauharnais / Marie Joséphe Rose Tascher de La Pagerie | Joséphine de Beauharnais |

Ingalaterrako errege-erreginak

(Oharra: ponte-izen bera duten eta bereizgarri bakarra ordinala duten errege guztiak ez dira sartu zerrendan)

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|
| Haroldo II.a | Haroldo II | Harold II | Harold II |
| Eduardo Aitorlea | Eduardo el Confesor | Édouard le Confesseur | Edward the Confessor |
| Gilen I.a edo Gilen Konkistatzailea edo Gilen Sasikoa | Guillermo I / Guillermo el Conquistador / Guillermo el Bastardo | Guillaume I ^{er} / Guillaume le Bâtard / Guillaume le Conquérant | William I / William the Bastard / William the Conqueror |
| Gilen II.a edo Gilen Gorria | Guillermo II / | Guillaume II / | William II / |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|--|---|
| | Guillermo Rufo | Guillaume le Roux | William Rufus / William the Red |
| Henrike I.a edo Henrike I.a Beauclerc | Enrique I | Henri I ^{er} Beauclerc | Henry I Henry Beauclerc |
| Eztebe I.a edo Eztebe Bloiskoa | Esteban de Blois / Esteban I de Inglaterra | Étienne de Blois / Étienne d'Angleterre | Stephen Stephen of Blois |
| Matilde enperatriza | Matilde de Inglaterra / Maud / emperatriz Matilde | Mathilde l'Emperesse / Maud / Mathilde d'Angleterre | Empress Matilda / Empress Maude |
| Henrike II.a edo Henrike Plantagenet | Enrique II / Enrique II Plantagenet | Henri II | Henry II / Henry Curtmantle / Henry FitzEmpress / Henry Plantagenet |
| Henrike Gaztea | Enrique el Joven | Henri le Jeune ou le jeune roi | Henry the Young King |
| Rikardo I.a edo Rikardo Lehoibihotza | Ricardo I / Ricardo Corazón de León | Richard I ^{er} Cœur de Lion | Richard I / Richard the Lionheart |
| Joan Lurgabea | Juan I / Juan sin Tierra | Jean sans Terre | John Lackland |
| Henrike III.a I edo Henrike Winchesterkoa | Enrique III | Henri III | Henry III / Henry of Winchester |
| Eduardo I.a edo Eduardo Zangaluzea | Eduardo I el Zanquilargo | Édouard I ^{er} Longues Jambes / le Marteau des Écossais | Edward I / Edward Longshanks / the Hammer of the Scots |
| Eduardo II.a edo Eduardo Caernarfongoa | Eduardo II | Édouard II | Edward II / Edward of Caernarfon |
| Eduardo III.a edo Eduardo Windsorkoa | Eduardo III Plantagenet | Édouard III | Edward III / Edward of Windsor |
| Rikardo II.a edo Rikardo Bordelekoa | Ricardo II / Ricardo de Burdeos | Richard II | Richard II / Richard of Bordeaux |
| Eduardo Woodstock-ekoa edo Printze Beltza | Eduardo de Woodstock / el Príncipe Negro | Édouard de Woodstock / Edouard Plantagenêt / | Edward of Woodstock the Black Prince |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|--|---|
| | | Prince noir | |
| Henrike IV.a Ingalaterrakoa edo Henrike Bolingbroke-koa | Enrique IV | Henri IV / Henry (de) Bolingbroke | Henry IV / Henry of Bolingbroke |
| Ana Boleyn | Ana Bolena | Anne Boleyn | Anne Boleyn |
| Joana Grey | Juana Grey / Juana I | Jeanne Grey, reine de neuf jours | Lady Jane Grey / Lady Jane Dudley / Nine-Day Queen |
| Maria I.a edo Maria Tudor edo Maria Odolzalea | María I / María Tudor / María la Sanguinaria | Marie I ^e / Marie Tudor / Marie la Sanglante | Mary I / Bloody Mary |
| Elisabet I.a edo Erregina Birjina | Isabel I / La Reina Virgen, Gloriana / La Buena Reina Bess | Élisabeth I ^e / la Reine Vierge | Elizabeth I / The Virgin Queen / Gloriana / Good Queen Bess |
| Jakue I.a Ingalaterrakoa eta Jakue VI.a Eskoziakoa | Jacobo I de Inglaterra y VI de Escocia | Jacques I ^{er} et Jacques VI | James I and VI |
| Karlos I.a Ingalaterrakoa eta Eskoziakoa | Carlos I de Inglaterra y de Escocia | Charles I ^{er} | Charles I |
| Jakue II.a Ingalaterrakoa eta Jakue VII.a Eskoziakoa | Jacobo II de Inglaterra y VII de Escocia | Jacques II d'Angleterre et Jacques VII d'Écosse | James II of England and VII of Scotland |
| Jakue Estuardo edo Erregegai Zaharra edo San Jurgiko Zalduna | Jacobo Francisco Eduardo Estuardo / el Caballero de San Jorge / el Viejo Pretendiente | Jacques François Édouard Stuart / le chevalier de Saint-George / le Vieux Prétendant | James Francis Edward, Prince of Wales / the Old Pretender |
| Maria II.a Ingalaterrakoa eta Eskoziakoa | María II de Inglaterra y Escocia | Marie II d'Angleterre et d'Écosse | Mary II of England and Scotland |
| Gilen III.a Ingalaterrakoa edo Gilen II.a Eskoziakoa | Guillermo III de Inglaterra | Guillaume III | William III of England |
| Ana Britainia Handikoa | Ana I / Ana de Gran Bretaña | Anne de Grande-Bretagne | Anne, Queen of the Great Britain |
| Jurgi I.a | Jorge I | George I ^{er} | George I |
| Viktoria (Britainia Handiko eta Irlandako Erresuma Batuko erregina eta Indiako enperatriza) | Victoria (Reina del Reino Unido de Gran Bretaña e Irlanda y | Victoria (reine du Royaume-Uni de Grande-Bretagne et d'Irlande et | Victoria (Queen of the United Kingdom of Great Britain and |

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|-----------------------|-------------------------|------------------------|-------------------------------|
| | emperatriz de la India) | impératrice des Indes) | Ireland and Empress of India) |
| Elizabeth II.a | Isabel II | Élisabeth II | Elizabeth II |

Europako beste errege-erregina batzuk eta beste pertsona batzuk

| Euskara | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa | Herrialdea |
|---|--|--|--------------------------------------|----------------|
| Maximiliano I.a Habsburgokoa | Maximiliano I de Habsburgo | Maximilien d'Autriche / Maximilien I ^{er} | Maximilian I | Inperio Santua |
| Josef I.a Habsburgokoa | José I de Habsburgo | Joseph I ^{er} de Habsbourg | Joseph I | Inperio Santua |
